

AKORDIOA, 2019, 2020, 2021 ETA 2022ko LAN ESKAINTZA PUBLIKOARI DAGOKION ENPLEGU PUBLIKOA EGONKORTZEKO EZHOIKO ETA OHIKO PROZEDUREN BIDEZ LAN KONTRATUDUN FINKOA IZATEKO HAUTAKETA PROZESUKO EPAIMAHAIARENA, DEIALDI ESPEZIFIKO BAKOITZAREN BEHIN-BEHINEKO AZKEN KALIFIKAZIOA ONARTZEN DUENA. 2022ko URRIAREN 20ko EBAZPENAREN BIDEZ EGIN ZEN DEIALDIA.

8.6 OINARRI OROKORREAN AURREIKUSITAKO ZOZKETAREN DATA.

I. eranskineko 8.6 oinarri orokorrak honako hau, deialdiari dagokionez, ezartzen du: *“Deialdi espezifikoko bakoitzeko azken kalifikazioa izango da lehiaketako puntuazioen eta euskarako puntuazioaren batura. Kalifikazioak unibertsitateko webgunean argitaratuko dira puntuazioaren arabera hurrenkeran, bakoitzari dagozkion izen-deiturekin eta nortasun agiriko, atzerritarren identifikazio zenbakiko, pasaporteko edo pareko dokumentuko ausazko lau zifrarekin.*

Hautagaien artean berdinketa gertatuz gero, irizpide hauek ordena honetan aplikatuz erabakiko da hurrenkerara:

- 1) *Puntuaziorik handiena deialdia egin duen administrazioko lan esperientzian, deialdiko talde, kategoria eta espezialitate berean, egunka kontatuta eta mugarik gabe.*
- 2) *Puntuaziorik handiena deialdia egin duen administrazioko lan esperientzian, egunka kontatuta eta mugarik gabe.*
- 3) *Puntuaziorik handiena administrazio publikoetako lan esperientzian, egunka kontatuta eta mugarik gabe.*
- 4) *Puntuaziorik handiena merezimendu profesionalen atalean.*
- 5) *Puntuaziorik handiena hautaketa prozesuen atalean.*
- 6) *Puntuaziorik handiena lan poltsen atalean.*
- 7) *Puntuaziorik handiena beste titulazio ofizialen atalean.*
- 8) *Puntuaziorik handiena EAEko hizkuntza ez ofizialen atalean.*
- 9) *Berdinketa apurtu ez bada, emakumeek izango dute lehentasuna beren presentzia %40ren azpitik dagoen administrazioko talde, kategoria eta espezialitateetan, salbu eta beste hautagai bat dagoenean, neurri hau ez aplikatzea justifikatzen duten ezaugarriak dituen, adibidez sexu diskriminazioaz bestelako arrazoiengatik lana lortzeko edo lanean gora egiteko oztopo bereziak dituen talde bateko kidea izatea.*
- 10) *Hala ere berdinketarik egonez gero, berdinduta daudenean artean UPV/EHUK egingo duen zozketaren bidez lortutako hurrenkerara ezarriko da.”*

Aipatutako lehen bederatzi irizpideekin lehiakide batuen artean berdinketa ebatzi gabe jarraitzen denez, beharrezkoa da hamargarren irizpidean aurreikusitako zozketara jotzea.

Berdindutako pertsonak I. eranskinean ageri dira, beren puntuazioekin batera.

Horrenbestez, hautaketa-prozesu honetako epaimahaia bilduta, eta adierazitako oinarri orokorrean ezarritakoarekin bat etorritik, honako hau erabaki du:

LEHENENGOA.- Zozketa bat egitea zortzigarren oinarrian adierazitako irizpideen arabera berdinketa ebatzi ezin izan duten hautagaien artean.

Hautaketa-prozesu horietatik lan-poltsen konfiguraziorik ondorioztatzen ez denez, epaimahaiak erabaki du zozketa egitea soilik prozesuan puntuak lortu dituzten hautagaien artean (335, 353, 358, 364, 365, 369, 377, 378, 398 eta 404 prozesuak), bai eta 334, 349 eta 368 prozesuetako 0 puntu lortu dituzten hautagaien artean ere, lanpostuak lortzeko postuetatik hurbil daudelako.

Zozketa ekitaldi publikoan egingo da, 2024ko maiatzaren 8an, asteazkenean, 9:00etan, Liburutegi Nagusiko Santimami gelan (Bizkaiko Campuseko Leioa-Erandio gunean).

Nahi izanez gero, hautagaiak zozketara bertaratu ahal izango dira, eta zozketa Microsoft Teams-en bidez emango da, berdinduta dauden hautagaiei gonbidapena bidaliz.

BIGARRENA.- Horretarako gaitutako UPV/EHUko web-orrian eta UPV/EHUko enplegu-atarian iragarkia argitaratzea (https://gestionenplegu.ehu.es/jobsite_g/euskera/generico_login.jsp); I. eranskina kontsultatzeko.

HIRUGARRENA.- 7.4 oinarri orokorraren arabera, epaimahaien erabakiak aurkaratu ahal izango dira Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen Legean zehaztutako kasuetan eta moduan (39/2015 Legea, urriaren 1ekoa). Erabaki honek ez dio amaiera ematen administrazio bideari, eta, beraren aurka, gora jotzeko errekurtsioa aurkez dakioke UPV/EHUko gerenteari, hilabeteko epean, erabaki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Errekurtso hori idazki baten bidez aurkeztu behar da, horretarako gaitutako UPV/EHUko erregistroetan, bai eta Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 16.4 artikulua zehazten duen edozein lekutan ere.

Leioan, sinaduraren datan.

Epaimahaiko idazkaria